

FUNTZIONAMENDU ARAUAK Unitate funtzionala – DIGESTIBOA

Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrria

GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Zure garbitasunerako, dutxadun bainugela bat duzu logelan.
- Gure laguntza behar baduzu, jo txirrria. Horrela, gure lana erraztuko duzu; izan ere, erizaintzako kontrol gelara etorri gero, gure lana oztopa dezakezu.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA / SENIDEEI INFORMAZIOA



- Egunero, igandean eta jaiegunetan izan ezik, 10:30etik 12:30era gutxi gorabehera.
- Bisitan zehar, medikuak zure egoeraren berri emango dizu.
- Bisitaren hasieran megafoniaz abisua emango dizuegu lagun guztiak irteteko eta 12:30ak arte ezin izango da unitatera sartu.
- Astelehenetik ostiralera 12:30ak aldera senideei informazioa emango dizuegu unitatearen sarreran dauden medikuen bulegoetan. Deituko dizugu.

OTORDUAK



9:15ean	Gosaria
13:15ean	Bazkaria
17:15ean	Merienda
20:15ean	Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitetz harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.
Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



Laguntza erlijiosa eta espiritual:

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan).
- **Erljio-laguntzako ordutegi berria** 9etatik 17etara izango da egunero.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiekete euren arimako maisuari.

PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).